



GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO
DIRULAGUNTZA ESKATZEKO AURKEZTU BEHARREKO
DOKUMENTUAK

- 1.- Eskabide-orria, emakumeak beteta eta sinatuta.
- 2.- Eranskina, emakumeak beteta eta sinatuta.
- 3.- Hirugarren interesdunaren alta dokumentua, emakumeak beteta eta sinatuta.
- 4.- Eskatzailearen NANA (Nortasun Agiri Nazionala), pasaporte eta edo baliokidea eta interesdunaren eta kargura dituen senideen edo hartutako adingabekoen (14 urtetik gorakoak) egoitza-baimenak.
- 5.- Genero-indarkeriaren egoera egiaztatzen duen dokumentua (babes-agindua edo zigortze-epaia edo Fiskaltzaren txostena). Indarrean egon behar dute eta babeseko neurriak indarrean sartzen direnetik eskabidea egiten den egunera bitartean ez da urtebete baino gehiago igaro behar.
- 6.- Bizilagun guztien zerrenda duen erroldatze-agiria eguneratua. Bertan etxebizitzan bizi diren guztiak azaldu behar dira eta erroldatze data ere. Erasotzailea ezin da agertu. Gehenez hilabeteko antzinakotasuna izan behar du, dirulaguntza eskaera aurkeztu duenetik. Interesatuak etengabeko antzinatasuna izan behar du eta etxebizitza horrek izan behar du beraien bizitokia azken sei hilabetetan, beraz, oraingo bizitokian ez badira sei hilabetez bizi antzinatasuna osatu arteko erroldak aurkeztu beharko ditu.
- 7.- Bere kargura senideak baditu, familia-liburua edo, bestela, zaintza, babesa edo tutoretza egiaztatzen duen ziurtagiria.
- 8.- Eskatzaileak edo ardurapeko pertsonak %33ko ezintasun maila edo handiagoa onartuta badute, eskumeneko erakundeek (aldundiek) egindako indarreko ezintasun-egiaztapena.
- 9.- Eskatzailearen eta bere ardurapeko bizikidetzaren unitateko kideen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren azken aitortpena edo, hala badagokio, Foru Ogasunean aitortpena egiteko beharra ez izatearen ziurtagiriaren kopia.
- 10.- Foru Aldundiaren ziurtagiria, eskatzaileak dituen ondasun higiezinak jasotzen dituen, baldin eta halakorik badu.
- 11.- Eskatzailearen edo lan egiteko adina duten bizikidetzaren unitateko kide guztien lan-bizitza (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra).
- 12.- Eskatzailearen eta bizikidetzaren unitatearen barruan lanerako adinean dauden kide guztien Enplegu Eskaerari alta Emateko eta Berritzeko dokumentua (DARDE) edo, hala badagokio, ikasten ari direlako ziurtagiria
- 13.- Eskatzailearen eta bere ardurapeko pertsonen kontuen eta bankuko tituluen egoerari buruzko agiriak. Bertan, gutxienez azken sei hilabeteetako mugimenduak agertu behar dira.
- 14.- Bankuko Kontu korrontearen libretako fotokopia (hirugarrenaren alta dokumentuan jarritako kontu korrontearena). Bertan titularraren izen-abizenak, helbidea, NANA eta kontuaren zenbakia agertu behar dira.
- 15.- Banatzeko demanda edo banatze-epaia edo Izatezko Bikoteen Erregistroko inskripzioa baliogabetu edo baliogabetzeko eskatu dela egiaztatzen duen ziurtagiria edo

hitzarmen arauemailea. Dokumentu horiek izan ezean, Doako justiziaren eskaera aurkeztu ahal da.